

noaua



NURIA HERNANDEZ: "NIRETZAT OSO GARRANTZITSUA DA LEKU BERRI BATERA IRISTEAN NORBAITEK HARRERA EGITEA"


'HarEman', etorri berriei harrera errazteko programari esker elkar ezagutu dute Nuriak eta Ane Aranburuk / 18-19. or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

Zuberoako ikastolen aldeko saskiak eskatzeko epealdia ireki da / 09



NOAUA

Gau Beltzaren lehen herri ospakizunean, gaztetxoak izan ziren protagonistak / 12



NOAUA

Aginagako Arrate ostatu eraberritua inauguratu zuten aurreko astean / 17



NOAUA

Heriotzaren pedagogiaz arituko dira Bizipoza jardunaldian / 20



USURBIL
OPTIKA

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com



Ba & Inmogest

Finka administratzailea
Aholkularitza zerbitzua
Inmobiliaria
Aseguruak

648 508 899
Eusko Gudari 35, Orio



errigora

Ezinbestekoak
euskararentzat Agerrean

agerraldia
euskararen plaza

aek

IKASTOLAK

Sortzen

urriak 23 - azaroak 13

Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** produktuz beteriko saskiak
eta eman balioaren **%25 zonaldeko euskalgintzari**

Zubieta 2, Enrike Abril errebote lehiaketako txapeldunorde

Lehia estua izan zen eta horrek are ikusgarriago egin zuen finala. Donibane Lohitzuneko Luzean taldea nagusitu da Enrike Abril errebote txapelketaren aurtengo edizioan. Aurkaria, Zubieta 2 taldea. 13-9 izan zen azken emaitza.

Dena eman zuten finalistek igande goizean, Zubietako errebote plazan jokaturako bi ordutik gorako partidari. Talde bakarrarentzat izan behar zuen txapela, ordea, eta aurtengo edizioakoa, Donibane Lohitzuneko Luzean taldeak jantzi du.



Donibane Lohitzuneko Luzean taldea nagusitu zen finalean. Zubieta 2 taldea aurtengo txapeldunordea izan da.

Garbigune mugikorra, Aginagan

Atallukora joan ezin dutenei, zerbitzu hau gerturatzen dien Udalaren garbigune mugikorra Mikel Laboa plazatik Aginagara lekuz aldatuko dute azaroaren 6an eta bertan izango dute astebetetz, azaroaren 12ra arte. Gero, Zubietara eramango dute eta bertan egongo da beste astebetetz.

Mutrikuko olatu plantara txangoa

Sortalde, Usurbilgo energia komunitateak antolatu du irteera. Azaroaren 15ean, 9:00-14:00 artean. Autobusa Bordatzoko biribilgunetik abiatuko da. "Mutrikuko olatu planta, olatuen energia aprobetxatzen duen Europa osoko lehenengo planta komertziala da". Izena emateko sortalde.eus atarira jo.

1972. urtean jaiotakoak abenduan elkartuko dira

Abenduaren 6an Patri jatetxean batuko dira. Izena emateko, 50 euro sartu behar dira (izen abizenak jarrita), ondorengo kontu korronte zenbakian: 3008 0148 6055 9364 1623 (Rural Kutxa). Izena emateko azken eguna, azaroak 30. Informazio gehiagorako edo zalantzak argitzeko: 649 008 980.

Ostegun honetan, Usurbilgo sagardoak dastatzeko saioa

Mikel Garaizabal enologoak gidatuko du ostegun honetako saioa (azaroak 6), 19:00etan Aginagako Eliza Zaharrean. Plaza kopuru mugatua da. Prezioa, 10 euro (5 euro usurbildar eta Alkartasunako ki-deek). Aurretik eman izena: 943 361 114 alkartasuna@usurbil.com



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goienna.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoinen.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzalea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Pobreziari aurka eginez

Pobrezia "izugarria da, inork beretzat nahi ez duena, ez bere familiarentzat eta ez adiskideentzat". Horrelaxe ohartarazi du pobreziaren eta giza bazterketaren aurka borrokatzeko Europako Sareak EAEn duen taldeak. Gizarte eragileek emandako datuen arabera, Hego Euskal Herrian 538.000 lagun dira pobre izateko arriskuan daudenak. Egoera horrek erraz darama berarekin gizartetik baztertua bizitzeko arriskua. Gure Elkarte Autonomoan, 3.000 pertsonak baino gehiagok ez du etxerik eta 100.000 baino gehiago bizi dira txirotasun larrian. Gai honetan adituak direnen ustez, pobrezia hau "egitura sozioekonomikoaren" ondorioa da. Pobreziak "gaizki bizitzea" esan nahi duela azpimarratu dute: "Hileko fakturak ezin ordaintzea, neguan berogailua ezin piztea... eta, egoera larriengan, bizitzeko etxe bat ez edukitzea".

Beste datu kezkarri bat: Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian adingabeen pobretasun maila igo egin da Covid-19 pandemiaren ostetik: haur eta nerabeen %12,2k txirotasuna edo gizarte bazterketa pairatzen dute. Espainia mailako datuek erakutsi dute 11 eta 17 arteko gazteak direla, eta gehienbat guraso bakkarreko familietan bizi direnak.

Arazo larri honi nola erantzun? Gai hau aztertzen du-



Hego Euskal Herrian 538.000 lagun dira pobre izateko arriskuan daudenak.

tenen aburuz, "egiturazko arazoa" da hau eta Autonomia Erkidegoko pobreziari erantzuteko, alde batetik zuzeneko laguntzez mintzatzen dira: dohaintzak eta boluntariotza, esaterako. Elikagai eta medikamentu bankuei emanez edo zuzenean beharrak dituzten bizilagunei lagunduz. Baina politika arloan funtsezkoena izango litzateke hezkuntza inklusiboa sustatzea, enplegu duina lortzea, etxebizitza eskuragarria bermatzea eta gizarte eta osasun zerbitzuak indartzea.

Txirotasunaren hari honi jarraituz, gure Aita Santu Leon XIV.ak argitaratu berria du gogoeta dokumentu bat: "Di-

**"DUINTASUNEZ
BIZITZEKO
AUKERARIK EZ
DUENA DA
POBREA",
ZEHAZTEN DU
LEON XIV.AK"**

lexi te" (maite izan zaitut) deitzen da. Frantzisko Aita Santuaren "Dilexit nos" (maite izan gaitu) idazkian oinarritzen da. Besteak beste, bertan pobreziaren gaia jorratzen du. Leon XIV.a konbentzituta dago xumeen aldeko lehentasunezko jarrerak aparteko berrikuntza sortzen duela bai Elizan eta baita sozietatean ere, baina, jakina, beroien oihua entzuten dabilgun neurrian. "Duintasunez bizitzeko aukerarik ez duena da pobrea", zehazten du.

Dokumentuaren 4. atalean gai bezala hartzen du Elizak XX. eta XXI. mendeetan pobreziari buruz eman zuen irakaskuntza. Aldi berean, pobreziak eta muturreko ezberdintasunek sortzen dituzten "bekatu egiturez" mintzatzen da, hau da, "hiltzailea den ekonomiaren diktadura". Teologo baten esanetan, azkeneko kapitulua da sutuena eta estilo pastoralagoa du. Behin eta berriz errepikatzen du: kristauak ezin du pentsatu pobrezia arazo sozial bat bakarrik denik. Arrazoia sinplea da: "Familiakoak dira, gureak, jainkoaren irudi". Horregatik, beroiengan Jainkoaren presentzia sumatzen dutenak dira benetako kristauak eta hori izango litzateke, baita ere, pertsona ororen duintasuna aitortzea. Horixe egin zuen, dio, samariar onak: erritoak alde batera utzi eta bide bazterrean erdi hilik zegoen gizajoari lagundu.

Gure Zirkurako sarrerak agortzen

Astebete barru, Urbil merkatagunean abiatuko du Gure Zirkua zortzigarren bira amaierako zikloa. Azaroaren 14tik 29ra hamar saio eskainiko dituzte. Haietatik hiru-erarako txartelak baino ez zituzten aste hasieran; azaroaren 14rako (19:00), hilaren 21erako (19:00), eta hilaren 28rako (19:00). Sarrerak gure-zirkua.eus atarian eskura ditzakezue.

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore bueltan

"Zerua lapurtu dute" ikuskitzuna itzuliko dira azaroaren 29an 17:00etan Oiardo kiroldegira. Usurbilgo Udalak eta NOAUA! K.E.-k antolatutako hitzordurako sarrerak, 8 eurotan eskura ditzakezue usurbilkultura.eus plataforman. "Birtxi farozainaren laguntzaz urdin infinitura abiatu dira izarren bila... unibertsoaren sekretuak ezagutzera, urrunera begiratzeko! Etorri nahi?".

"Go!azen 12.0" telesailaren estreinaldia

Sutegin eskainiko da primizia gisa, ostiral honetan, azaroaren 7an eta bitan, arratsaldeko 17:30ean eta iluntzeko 19:00etan. Bi proiektzio horietarako gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman doan eskura ditzakezue, jada agortu ez badira.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ANDATZA TABERNA
EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
8:00-23:00 Igandetik - Ostegunera
8:00-00:00 Ostiralek - Larunbatera
Kaleazar Auzoa 12, OB, USURBIL Tel 943 73 20 27

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua • asteburuko menua
oilasko erreak, ogitarteak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.



Azokaz gain, Erle Egunean ezti eta gozogintza lehiaketa egin ohi da.

24. Erle Egunerako prestatzen hasteko deia

Azaroko azken asteburuan ospatuko da 24. Erle Eguna. Erle Lagunak taldeak dagoeneko osatua du egitaraua.

Egun horretan ospatuko den gozogintza txapelketan parte hartzera deitu dute. Ezti izan behar dute jakiek osagaien artean. Garaiz jakinaz nahi dute deialdi hau, prestaketa lanak bidera ditzazuen:

- 24. Erle Eguna**
Azaroak 29, larunbata
• 17:30 "Argizaiola" liburu aurkezpena Salvatore parrokiari.
- Azaroak 30, igandea**
• 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.

- 11:00-14:00 Azoka: produktuen salmenta, erakusketak Sutegin, Marrazki Lehiaketako lanak, bideoak. Horrez gain: ezti dastaketa frontoian, eztiarekin eta txokolatearekin egindako goxoak, argizaiola, Balerdipekoen eskutik, kandelak egiteko aukera.
- 13:30 Euskal Herriko 24. Ezti, gozogintzako eta marrazki lehiaketaren sari banaketa.

AZAROAREN 29AN ARGIZAIOLA LIBURUA AURKEZTUKO DUTE

Errigoraren otarrak eskatzeko azken astea

Azaroaren 13ra arte egin ditzakezue Errigoraren udazken parteko kanpainako eskaerak. Nafarroa erdialdean eta hegoaldean ekotizitako produktuez hornituri hiru otar dituzue aukerari. Horietatik jasotako laguntzaren laurdena eremu horretako euskalgintzara bideratuko dute:

- Beltza:**
60 eurotan, olio, piperrak, zainzuriak, orburuak, kardua, potxak, borraja, teilak, mahats zukua, ardo beltza, ilarak, patxaran mantekatuak.
- Berdea (Eko):**
65 eurotan, piperrak, olio, zainzuriak, orburuak, txitxirioak, pasta, tomateak, teilak,

txokopipitak, sagar zukua, ozpina, ardo beltza erdi-ondua.

- Gorria:**
75 eurotan, ardo beltza (18 hil barrikan), ardo txuria, olio, piperrak, zainzuriak, turroia, mantekadak, polboroiak, ardi-gazta, txokolatezko molineritoak, patxarana. Eskaerak egiteko epealdia: azaroaren 13ra arte.
- Informazio gehiago eta eskaerak: NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan (943 360 321) edo errigora.eus atarian.

Udal aurrekontuen aurkezpen bilerak

2026ko udal aurrekontu proposamena Usurbilgo herri eta auzoetan aurkeztera doa EH-Bilduren udal gobernu taldea. Horretarako, zortzi bilera deitu ditu egunotarako. Tokian tokiko gaiez hitz egiteko baliatuko dituzte saiook:

- Azaroak 5, asteazkena**
• 18:00 Kalezar (Pelaioenean), Aginaga (Eliza Zaharrean) eta Santuenea (frontoi ondoko lokalean).

- Azaroak 6, osteguna**
• 18:00 Txokoalde (Txokoargin) eta Atxegalde (Bustinzulon).

- Azaroak 11, asteartea**
• 18:00 Zubieta (Kaxkapen) eta Etxealdia (Potxoenean).

- Azaroak 12, asteazkena**
• 18:00 Kaxkoa (Potxoenean).

Deitzailea: udal gobernu taldea.

Emakumeon Etxeko deialdiak

Bi hitzorduak antolatu ditu Emakumeon Etxeak Kalezar-ko Pelaioenean:

- Azaroak 6, osteguna**
• 17:00-19:00 "Hilekoa pubertaroan" tailerra.
• Hizlaria: Ainitze Sala Insausti.

- Azaroak 20, osteguna**
• 17:30 Hitzaldia: "Familia eredu berriak eta legedi zaharra, nola uztartzen da hau?".
• Hizlaria: Irule Abokatuak taldea.

- Informazio gehiago:**
Kalezarko Pelaioenean: astelehenetik ostiralera, 10:00-13:00 artean. Astearte eta ostegunetan, 17:00-20:00 artean ere bai.
• 943 377 112
• emakumeonetxea@usurbil.eus



Diru kontuak edota gai sozialak hizpide izan zituen udalbatzak urriaren 30eko osoko bilkuran.

Diru kontuak eta gai sozialak hizpide, urriko osoko bilkuran

Urriaren 30ean eginiko udalbatzaren osoko bilkuran 2026. urterako taxi tarifak, Oiardo kiroldegiko konponketa lanak, azaroaren 25ari begirako adierazpena edota etxex etxeko udal zerbitzua izan zuten hizpide.

ARITZ LASARTE

Urria hasierako osoko bilkuran 2026ko ordenantza fiskalak hasieraz onartu zituen udalbatzak. Hilabete amaieran eginiko osoko bilkuran, urte berrirako taxi zerbitzuari lotutako tarifekin gauza bera egin zuten. Gogoan izan, iaz, Usurbil, Beterri Buruntza, Donostia bera nahiz Oarsoalde bere baitan hartzen duen Donostialdeko Erregimen Bereziko Eremua sortu zuten, "turismo ibilgailuen bidaiarien herri barruko edo herriarteko garraio publikoaren zerbitzua eskaintzeko". Ordutik, zonalde osoan prezio berak adosteko lanketan dihardute. 2026koak adosteko bilkura egin zuen eremu horri lotutako jarraipen batzordeak urria-

ren 14an. Taxi gidariak biltzen dituen sektoreak igoera proposamen handiagoa egin zuen arren, hurrengo urtean %2,4 igotzea adostu zuten udalekin.

Diru txertaketak

Kreditu aldaketa baten berri ere eman zuten osoko bilkura berean. Izan ere, 85.938,15 euroko txertaketa egin dute.

"JADA 21,2 MILIOI EURO PASATXOKO UDAL AURREKONTUAK IZATERA IGARO DA HERRI HAU"

USURBILGO UDALA

Nagusiki Usurbilgo Udalak eta Aginagako Herri Koope-
ratibak lau urterako sinaturiko lankidetz hitzarmenari lotutakoa da. 72.678,15 euro bideratuko dira Aginaga bizi-
berritzera bi partiden bidez; bat, Arrate ostatu eraberritua Garapen Ekonomikoko sailaren bidez, eta, bestalde, Eliza Zaharra Elkarguneko

"OIARDOKO KALTETUTAKO EREMUA BERE ONERA EKARTZEKO KREDITU ALDAKETA ONARTU ZUEN"

USURBILGO UDALA

kultur programazioa dinamizatzen kultura sailetik. Udal gobernu taldeak iragan aste-ko osoko bilkuran azaldu zuten, diru kopuru horren bidez, 2025eko udal aurrekontuetatik erantzungo zaio egitasmo horri urteko azken bi hilabeteotan nahiz 2026 osoan. Horrez gain, kirol ekitaldi zenbait finantzatu edota areagotutako komunikazio beharrei erantzuteko partidak dira kreditu aldaketa horrek bere baitan bildutakoak, 13.260 eurokoak dira beste bi partida horiek.

Diru kontuei lotutako xehe-tasun gehiago ere eskaini ziren urriaren 30eko udalbatzaren osoko bilkuran, udal kontuhartzailearen eskutik, hiru hilero egin ohi duen moduan. Besteak beste, fakturak ordaintzeko finkaturiko 30 eguneko epealdiaren baitan da Usurbilgo Udala. Bataz beste, 1,89 eguneko da ordainketa horietarako behar izaten duen denbora. Bestalde, kreditu aldaketekin aurtengo udal aurrekontuak nola hazi diren ere jakinarazi zuen. Hasieraz onarturikoak 15,2 milioi euro pasatxokoak izan ziren. Kreditu aldaketekin jada 21,2 milioi euro pasatxoko udal aurrekontuak izatera igaro da herri hau. 22 milioi euro ingurukoekin agurtu dezake urte hau.

Oiardoko konponketa lanak

Dakizuen bezala, abuztuaren 27an sutea izan zen Oiardo kiroldegiko saunak. Konponketa lanei dagokienean bada albistirik. Izan ere, udal gobernu taldeak iragan aste-ko osoko bilkuran kaltetutako eremua bere onera ekarri eta berriz erabilgarri jartzeko kreditu aldaketa onartu zuen udalbatzak aho batez. Erabakiaren xede nagusia da, konponketak ahal bezainbeste azkartzea. Kalteen balorazioa egiteko txostena asteotan jaso du Udala. Suteak saunaren gainetik dauden instalakuntzak nahiz igarilekuak matxuratu zituen.



Oiardo kirolegiko berrikuntza lanak hizpide izan zituen udalbatzak iragan asteko osoko bilkuran.

—> 640.000 euroko kaltea izan da. Udalarentzat lehentasunezkoa da Oiardo kirolegia bere osotasunean irekitzea. Aseguruaren kalte ordainaren zenbatekoaren berri ez du jaso Udalak, azaroa amaiera alde- ra espero dute jakitea, horretarako hiru hilabeteko epealdia izaten baita; hortik aurrera, hala egin ez izanagatik kalte ordaina jaso beharko luke Udalak. Edonola ere, kaltetutako eremuak bere onera ekartzeak luze joko duenez, prozesua ahalik eta lasterren abiatzeko Udalak aurreztua duen dirua baliatuko da prozesu hori martxan jartzeko. "Halako ustekabe bati aurre egiteko gai da Udala, gainerako inbertsio, obra edota proiektuak kaltetu gabe", azaldu zuten udal gobernu talde- tik iragan asteko osoko bilku- ran. Onarturiko kreditu alda- ketarekin, asmoa, "dena ondo bidean, urtebete pasatxoko" prozesua izango dela aurrei- kusia dute; exekuzio proiektua landu, lanak esleitu eta obrak

egiteko denbora tarte 2026ko udazkenara arte luzatuko da gutxienez.

Komunitatea arretagune

Azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeria Desage- rrarazteko Nazioarteko Eguna ere hizpide izan zuen udalba- tzak iragan asteko osoko bil- kuran. Izan ere, egun horri begirako adierazpena onartu zuen aho batez. Bere bidez, hainbat konpromiso hartu zituen udalbatzak: hurbiltasun-sare lokalak indartzea; herrira iritsitako pertsonen- tzako harrera- eta integra- zio-programak garatzea; hez- kuntza-, osasun-, kultura- eta aisialdi-inguruneetan lagun- tza-sareak sustatzea; senti- bilizazio- eta kontzientzia- zio-kanpainak garatzea; in- dakeria matxista kasuen aurrean, herritarren mobili- zazioa sustatzea; aliantzak garatzea sexuen arteko harre- man osasungarri eta bidezko kodeak sortzeko; eta, azkenik, tokiko emakumeen mugimen-

duei eta mugimendu femi- nistari laguntzea eta haiekin koordinatzea. Aurtengoan, komunitateari erreparatu nahi dio adierazpen horrek. Izan ere, "komunitateak emaku- meen aurkako indarkeria ma- txista prebenitzen lagun de- zake"; bai komunitate femi- nistak baita tokiko komunita- teak ere. Horregatik, udalba- tzak aho batez onarturiko adierazpenak dioenez, "Uda- lok erantzukizun zuzena dugu, komunitateak sustatzeko non auzotarrak, taldeak eta koa- drilak indarkeria matxistaren aurrean erne egongo diren, eta indarkeria matxista paira-

"HALAKO USTEKABE BATI AURRE EGITEKO GAI DA UDALA, GAINERAKO OBRAK KALTETU GABE"

AGURTZANE SOLABERRIETA

tzen dutenak hartu, integratu eta babestuko duen bizitza komunitarioa bultzatzeko. Era berean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren bikti- mentzako komunitate erre- paratzaileak sustatzeko eran- tzukizuna dugu".

Etkez etxeko zerbitzua

Udal zerbitzu hau eskaintzen jarraitzeko, Usurbilgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundia- rekin indarrean duen lanki- detza hitzarmena beste urte- betez luzatzea onartu zuen udalbatzak aho batez iragan asteko osoko bilkuran, 2026ko irailaren 30era arte hain zuzen. Luzapena orain arteko "ter- mino berdinetan" egingo da. Udal gobernu talde- tik gogo- rarazi zuten, zerbitzu horren berrantolaketa lan bete- an dira, asmo bikoitzarekin; batetik, zerbitzua hobetzeko, pertso- na ardatz duen eredura ekar- tzeko, eta, bestalde, zaintzai- leen lan-baldintzak duintzen ahalegintzeko. Horretarako, finantzaketa handitu beharra du Udalak. Zerbitzu horrek duen garrantzia udal aurre- kontuetan nabarmenduko dela gogorarazi zuten udal gobernu talde- tik. Horren harira hain zuzen, hausnarketa- rako deia egin zuen Usurbilgo alkateak, "gogoetarako mahaia irekitzea", zerbitzu horren finantzaketaren inguruan, aipatu zerbitzuaren "eralda- keta jasangarria den edo ez udalontzat" gogoetatzeko. Agurtzane Solaberrietak argi- tu zuenez, eraldaketa hori eta zerbitzu egonkor bat izateko "dirulaguntza bidez soilik ezin da egin". Herritarrek eskatu bezala, "etxeetan bizitzera begirako zerbitzua eskaini nahi bada, etkez etxeko zerbitzuan jarri behar da indarra".

Artzi
Patrikuz
latetxea
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361

txirriStra
TABERNA
• PLATER KONBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

EAJ-PNV: "Etxez etxeko laguntza Udalaren eskumena da, ez Foru Aldundiarena"

Administrazio bakoitzak bere eskumenak eta betebeharrak argi izatea ezinbestekoa dela deritzo Usurbilgo EAJk.

EAJ-PNVrentzat ez da onargarria zalantzan jartzea "Gipuzkoako Foru Aldundiak Usurbilen Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (SAD) finantzaketan egiten duen ekarpena". Jeltzaleek alkateari gogorazari nahi diote "zerbitzu hori udalaren eskumena dela, eta, ondorioz, udalaren ardura dela behar diren baliabideak lehenestea eta bermatzea".

Alderdi jeltzaleak prentsa-ohar bidez azaldu duenez, "Aldundiak ezin du udal kompetentziak bere gain hartu". Gipuzkoako erakunden nagusiak lankidetzara eta elkarlanaren bidez ekonomikoki laguntzen duela Usurbilgo Udala, baina ezin duela asumitu udalari dagokion ardura.

"Zaintza erdigunean jartzen bada, aurrekontuetan islatu beharko da"
Zaintza politikak lehentasuna hartu dute maila sozialean eta

politikoan. "Testuinguru honetan, ezinbestekoa da administrazio bakoitzak bere eskumenak eta betebeharrak argizatea", dio Usurbilgo EAJk. "Udalak, bere gaitasunaren eta baliabideen baitan, erabaki behar du zein mailatan eta nola indartu nahi duen etxeko laguntza, eta horrek bere isla izan behar du udal aurrekontuetan".

Horregatik guztiatik, EAJk zintzotasunez jokatzeko eskatzen dio EH Bilduri. "Usurbilgo Udala adinean nagusia da: FOFINA kobratzen duenean, bere aurrekontuak egiten dituenen eta bere lehentasunak ezartzen dituenen". Ivan Iriondo zinegotzi jeltzalearen esanetan, "zaintza erdigunean jartzen bada, hori aurrekontuetan islatu beharko da".

EAJk azpimarratu nahi du Aldundiak gizarte politiketan egiten duen ahalegin ekono-



Argazkia uztailakoa da, etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen ordenantza aldatzea onartu zuteneko.

mikoa "nabarmena eta egiturazkoa dela. Aldundiaren aurrekontuaren %50 arlo sozialek bideratzen da, eta 2026rako aurrekontu-proiektuan %12ko igoera aurreikusten da gizarte politiketan. Honenbestez, nekez ipini daiteke zalantzan, zaintza eta ongizateari dagokionean, Foru Aldundiaren apustu sendoa. Konpromisoa egiaztagarria da, eta zenbakiak berretsi egiten dute."

Diagnostikoan, bat

EAJk bat egiten du alkateak 'Usurbil, zaintzaren herria' lelopean egindako diagnostikoarekin. Aldiz, alderdi jeltzalearen iritziz, ematen den irudia eta errealitatea ez datozela bat, "eta zaintza arloko eraldaketaren zama ekonomikoa ezin da beste erakunde baten gain utzi".

Ivan Iriondo zinegotziak azaldu du zaintzaren herria izateak konpromiso propioak eskatzen dituela. "Foru Aldundiak bere ekarpena egiten du, baina erakunde bakoitzari berea egitea dagokio".

EAJ-PNVk elkarlanerako eta elkarriketarako prestutasuna duela dio, "betiere instituzio bakoitzaren eskumenen eta erantzukizunen mugak errespetatuz. Herritarren ongizatea eta zaintza duina bermatzeko lanean jarraituko dugu".

"ALDUNDIAREN AHALEGIN EKONOMIKOA NABARMENA DA"

IVAN IRIONDO, EAJ-PNV

Kiroldegiko abonamenduak %25 konpentsatuko dira 2026an, igerilekuaren eta saunaren itxiera dela eta

Oiardo kiroldegiko kalteak 641.000 euroan baloratu dira eta urriaren 30eko plenoan kreditu aldaketa bat onartu zen, "aseguru etxearen erantzunaren zain egon gabe, udalak obrak bere kabuz hasi eta irekitzeko prozesua azkartzeko". Udalaren aurreikuspenen arabera, igerilekua eta sauna irekitzerako 2026ko udazkena izango da.

Udala exekuzio proiektua idazten ari da orain, eta kreditu aldaketa onartu eta gero, obrak egiteko lizitazioa aha-

lik eta azkarren" publikatu nahi du.

Egoera honen aurrean, EAJk urriko osoko bilkuran proposatu zuen kiroldegiko bazkideek —zerbitzu horien erabiltzaile direnek— kuota erabiltzeko edo egokitzen den proportzionala eskatzeko aukera izatea.

Ordenantza fiskalen baitan

Udal gobernuak azaroaren 3an idatzi baten bidez azaldu zuenez, "zenbait herritarrek

ere eskatu dute jada itxieragatik itzulketa egitea, baina udalaren ordenantza fiskalek ez dute ahalbidetzen jada ordaindutako kuota itzulketarik egitea. Horren ordez, 2026ko kuota ordaintzea egokitzen denean %25eko konpentsazioa egingo zaie bazkide guztiei".

Udalak gogora ekarri nahi du Oiardo kiroldegiko abonamenduak "eskubidea ematen diela bazkideei Usurbilgo kiroldegia ez ezik Beterri Buntzako eta Mugiment txar-

telaren sareko kiroldegia erabiltzeko".

EAJ: "Kiroldegiko erabiltzaileak konpentsatzea lortu da"

EAJ-PNVk urriaren 30eko plenoan egindako proposamena "gobernu taldeak begi onez ikusi bazuen ere, neurriaren bideragarritasun teknikariek aztertu ondoren, gaur bertan (azaroak 3) etorri zaigu baiezko erantzuna. Pozik gaude egindako eskaera entzun, aztertu eta inplementatu delako. Kiroldegiko erabiltzaileei behin behineko egoera honetan konpentsatzea lortu baita".



Aurtengoan, produktu berriein osatu dituzte saskiak. Ohi bezala, hiru saski daude aukeran.

Zuberoako ikastolen aldeko saskiak eskatzeko garaia da

Zuberoan bi ikastola daude: Alozekoa, Basaburuan; eta Eperra, Pettarrean. Tokiko mozkinekin prestatzen dituzten saskiak erosiz, ikastola hauen etorkizuna bermatzen lagundu dezakegu.

IMANOL UBEDA

"Ipar Euskal Herrian euskarak ez du babes ofizialik. Euskara hizkuntza gutxiagotua gelditzen da gure lurraldean. Euskararen etxeko transmisioa Zuberoan eteten ari den heinean, ikastolek dute euskararen transmisioa bermatzen". Zuberoako bi ikastolek hortaz, argi daukate: "beraz, hobe gaurdanik gure esku dagozten dinamikak martxan jartzea, bihar eta etorkizunean autonomia haundiago batekin bizitzeko gisan. Hortan datza ere sas-

ki salmentaren funtsetakobat".

Aurten ere, hiru saski ezberdin prestatu dituzte. Baina honakoan, eskaintza eta prezioak berrikusi dituzte. Hauek dira aukeran dituzuen hiru saskiak:

Pettarra (52 euro)

Ahate gibel berrosatua, eztia, ardi gazta kiloa, bixkotx gatzatuak eta pastak.

Arbaila (57 euro)

Eztia, bixkotx artizanalak, kilo erdiko bi gazta zati, bixkotx

gazituak, erreximenta, tisanak eta pastak.

Basabürüa (70 euro)

Xerri pate, ardi gazna kiloa, lukainka idorra, eztia, piereezti, sagar juja eta pastak.

Saskiak eskatzeko zer egin behar da?

Zuberoako ikastolen aldeko saskiak azaroaren 21era arte eskatu daitezke. Saskiak ordea, abenduaren erdialdean banatuko dituzte. Bi modutara eska daitezke:

- NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan.
- Internetez, ikaskoli.eus web orrialdearen bidez enkargatu eta Usurbilen jaso nahi duzula zehaztu bertan.

Saskiak NOAUAren egoitzan jaso ahal izango da, edota Usurbilgo Santomas azoka egunean bestela: abenduaren 14an, Nafartarren postuan.

Beterri-Buruntza Mankomunitatearen eskaintza bikoitza

Beterri-Buruntza Mankomunitateak eskualdeko enpresei dei egiten die, oraindik plaza libreak dituzten bi egitasmo estrategikotan parte har dezaten: Lanaren Zentzua (langileen ongizatea lantzeko) eta ESG diagnostikoa (ingurumen, gizarte eta gobernantzako irizpideak lantzeko).

Bi egitasmoak bereziki diseinatuta daude enpresek bi lehiakortasun gako lantzeko: batetik, lehiakortasun soziala, langileen ongizatea eta talentuen atxikipena indartzeko; eta bestetik, ingurumen-lehiakortasuna, enpresak jasanga-riago bihurtzeko, posizionamendu hobe lortuz.

Plaza kopurua, mugatua

Bi programak enpresaren erritmo eta beharretara egokitzen dira, eta aukera ematen dute lehen urratsak errazak ematen hasteko adituen eskutik. Gainera, parte-hartzea doakoa da eta plazak agortzeaz daude.

Bietako edozeinetan interesa duten enpresek Mankomunitateko Enpresa sailarekin harremanetan jarri besterik ez dute egin behar, enpresa@beterriburuntza.eus helbidera idatzita, edo 943 244 523 telefonora deituta. Plaza mugatuak dira, eta azken enpresen esleipena datozen egune-tan itxiko da.

Rikardo Arregi kazetaritza sariko ohorezko aipamena, Jakoba Errekondorentzat

Rikardo Arregi kazetaritza sariak honela azaldu du sariaren arrazoia: "Jakoba Errekondo Saltsamendik (Usurbil, 1961) hondar urteotan baratzaz ezarri du denen bizitzaren erdigunean, izan hirian, izan baserri gunee-tan. Agronomoa eta paisaia antolatzailea da, 64 urteko usurbildar hau. Bera

ere laborantzian ari da Aginagako bidean dagoen bere Aranburu izeneko baserrian. Euskadi Irratian hasi zen baratzaz aipatzen, Argia astekar-ian gero, hor duela bere baratze-zain artea gehien garatu. Elhuyar aldizkarian ere kolaboratzen du. Hainbat argitalpen ere baditu plazan,

hala nola, Olariaga marrazki-lariarekin egin duen baratze egileen agenda, Bizi baratza izeneko liburuak, eta azken hilabeteotan, Argiarekin batera datorren lau orrialde plegatuekiko berri-papera, besteak beste. Irakurle eta zaleengana heltzeko baliabide gairakideak erabiltzen ditu, zuzeneko topaketak EH honen zazpi izkinitan, bai eta sare sozialak, podcastak, Youtube edo Instagram hariak adibidez.

Horregatik guztiagatik, eta beste arrazoiengatik, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren epaimahaiak izendatu du Jakoba Errekondo Saltsamendi aurtengo ohorezko mugarria eta azaroaren 26an eszenatoki gainera deituko du Xabier Laka eskultoreak mugarri honetarako sortutako oroitikurra jaso dezan".

Azaroaren 26an izango da sari banaketa ekitaldia, Andoaingo Bastero kulturgunean.



Iazko 650 Usurbil Bizi otarra egitasmoaren sustatzaile taldea.

650 Usurbil Bizi otarra herri ekoizpenaz hornitzeko garaia

Zabalik da urte amaieran zozketatuko diren 650 Usurbil Bizi otarrak herri sorkuntzaz eta ekoizpenaz hornitzeko izen-emate epealdia. Lerrootan dituzue, Udalak, Kulturguneak eta Hurbilagok sustaturiko ekimenaren aurtengo edizioari buruzko xehetasunak.

ARITZ LASARTE

2022an Usurbilgo Udalak, Usurbilgo Kulturguneak eta Hurbilago elkarteak lankidetzan abiarazitako 650 Usurbil Bizi otarren egitasmoa bueltan da, "herriko ekoizle eta sortzaileen lana ezagun egin eta produktu horiei ikusgarritasuna emateko, herrian bertan kontsumitzea bultzatzearekin batera".

Aurreko hiru edizioetako balantze positiboa egin dute antolatzaileek, "herriko eragileen parte-hartzea altua izan zelako. Iaz, Usurbilgo 31 ekoizle eta sortzailek hartu zuten parte; Hurbilago elkartekoak diren 16 saltokik hartu zuten parte otarren zozketan, eta 100 otar banatu zituzten bezeroen artean".

650 Usurbil Bizi Otarra

Parte hartzeko baldintzak
a) Kultura eta sormen industriako jardueretarako: Usurbilen erroldatutako herriarra edo elkarte izatea eta eskainitako produktuaren egilea edo autorea izatea. Taldean egindako lanak badira, taldekideen %33k, gutxienez, Usurbilen erroldatua egon behar du. Azken 5 urteetan

merkaturatutako produktua izatea.

Kultura eta sormenaren industriako ondorengo jarduerara-adarren bateko eragilea izatea ere eskatuko da: musika, literatura, arte eszenikoak, ikusmen-arteak, bestelako kultur diziplinetako eragileak, moda diseinatzaileak eta sormen industriako bestelako eragileak.

**"IAZ, 31 EKOIZLEK
ETA SORTZAILEK
HARTU ZUTEN
PARTE;
HURBILAGOKO 16
SALTOKIK"**

**"650 USURBIL BIZI
OTARRA
HURBILAGOREN
UDAZKENEKO
AZOKAN
AURKEZTUKO DA"**

b) Lehen sektorea, ostalaritza eta elikaduraren industriako ekoizleentzat:

Lehen sektorekotzat joko dira nekazaritza edota abeltzaintzaren sektoreko jarduera bat izan eta ekoizpen-ustiatagia Usurbilen daukatenak. Elikadura-industriako ekoizletzat Usurbilgo lursailtako nekazaritza edota abeltzaintzako ekoizpen propioa duten sagardogileak eta elikadura-industriako bestelako ekoizleak. Elikadura-produktuak eskaintzen dituzten ekoizleek, jakien osasun erregistroan inskribatuta egon beharko dute edo osasun-baimena izan, hala dagokion kasuan.

Egutegia

Azaroak 3-16

• Otarrerako eskaintza aurkeztu eta izen-ematea lotura honetan: labur.eus/650otarra2025

Azaroak 17-23

• Ekoizleen eskaintzak aztertuko dituzte sustatzaileek osatutako lantaldeak. Egiaztapena eginda, egindako eskaintzaren onarpena bidaliko zaie ekoizleei. Jakinarazpen horretan eskainitako produktuak non eta noiz entregatu behar diren ere zehaztuko da.

Azaroak 29, larunbata

• **13:30** 650 Usurbil Bizi otarraren aurkezpena Hurbilagoren Udazkeneko Azokan.

Abenduak 1-26

• Gabonetako otarren Hurbilagoren zozketan parte hartzeko txartelak eskuratzeko aukera, herriko saltokietan eginiko erosketen truke.

Abenduak 26 ostirala

• Saltoki bakoitzeko zozketak egingo dira.

Abenduak 27, larunbata

• **13:30** Otarren banaketa ekitaldia Usurbilgo frontoian. Informazio gehiago, gertuago@gertuago.eus helbidean edo 652 085 811 telefono zenbakian.

Artisautzari gorazarre, Aitzaga Elkartearen azokan

Azaroaren 1ean artisautzak hartu zuen herri bizitzaren erdigunea, Aitzaga Elkartearen azokarekin.

ARITZ LASARTE

Giro ederra izan zen beste urte batez, Aitzaga Kultur Elkartek antolatutako Artisan Azokan. 29. edizioa azaroaren lehenean egin zuten. Denetarikoa hamarnaka postu batu zituen hitzorduak. Askotariko jakien postuak, bitxiak, musika tresnak... denetik aurki zitezkeen Usurbilgo artisauren azokan. Eskuz lantzeko sormen prozesuaren aritzen diren, haien lanen eta lanok ezagutzera joandakoen elkargunea izan zen iragan larunbata herri erdigunea. Tarteka egingako euri ziprintinetatik salbu izan zen Aitzaga Kultur

Elkartek antolatutako azoka. Bi aterpeetan egin zen; bate-tik, postu gehienak frontoian kokatu zituzten. Azokaren bigarren eremua, Askatasuna plaza izan zen. Batean zein bestean, osteratxoak egin izan ziren hainbat herritar eta bisitari, artisauekin harremantzen, haien lana ezagutu eta aintzatesten nahiz erosketak egin.

Azokaren garaia

Usurbilgo talogileek girotu zuten hitzordua. Hamaiketako ederra dastatu zuten haiengana jo zutenek. Aitzaga K.E.-k antolatutakoarekin, jada, urte



Denetarikoa postuei egin zuten tartea Artisan Azokan.

amaierako azokaren zikloan murgildu da herri hau. Azaroko azken asteburuan Hurbilagoren Udazkeneko Azoka eta 24. Erle Eguna egingo dira. Abenduaren 14an, bestalde, NOAUA! K.E.-ren San Tomas azoka.

"JADA, URTE AMAIERAKO AZOKEN ZIKLOAN MURGILDU DA HERRI HAU"



Denetarikoa artisauren eta bisitariak, azokako postuen alde banatan.



Azokako postuak, artisauren erakusleiho.



Artisan Azoka bateko ezinbestekoak; artisauren, artisauren lanak eta bisitariak.



Usurbilgo talogileek hamaiketako ederrarekin girotu zuten azoka.

Harrera beroa egin zaio izua uxaturiko Gau Beltzari

Estreinakoz eragileen arteko elkarlanetik urriaren 31n herri mailan ospaturiko Gau Beltza arrakastatsua izan da.

Ilunpean murgildu zen herri erdigunea urriaren 31n. Estreinakoz, hainbat eragileren lan-kidetzatik herri mailako Gau Beltza ospatu zen. Belaunaldi arteko topaketa izan zen, nagusiki guraso eta haurrena. HH eta LHkoentzako erronkarekin ekin zitzaion ospakizunari. Beldurra uxatzea zuen helburu, linternen argia bidelagun, Aranerekako parke berrian, Errekatzikikoan, Artzabalen edota Udarregi ikastolako patio borobilaren eginiko pisten jokoak. Izuarekin hartueman

zuzenean jarri, elkarbizi eta uxatzea lortu zuten gazteenek, estreinakoz, Usurbilen ospaturiko Gau Beltzaren hasieran.

Beldurra birrindua

Su argiarekin kalejiran abiatu ziren gero, trikitilariak lagun, Dema plazako amaierako ekitaldira. Gaztetxoek aurrez prestatuak zituzten beldurrak sutan erre zituzten. Hezur Lapur pertsonaia ere agurtu eta plazatik bidali zuten. Amaieran, Neomak taldearen "Ilargi Berriak" abestiaren erritmora



Su-argia Gau Beltzako kalejiraren buru.

dantza bizian borobildu zuten ekitaldia. Segidan, Ostolazak eta Larrañagak erromeria giroa piztu zuten, hasitako euri tantetatik salbu izateko frontoian eginiko dantzaldian. Azken txanpa horretan, bidelagun izan zituzten gaztaingileak nahiz Udarregi ikastolako DBH4-koak jaki goxoak zerbitzatzen, ikasturte amaierako bidaia finantzatzeko laguntze-

ko. Auzolana izan zuen ardatz, estreinakoz eginiko Usurbilgo Gau Beltza arrakastatsuak.

"IZUAREKIN HARTUEMAN ZUZENEAN JARRI ETA UXATU ZUTEN GAZTEENEK"



Beldurrak erretzeko Dema plazan eginiko ekitaldia.



Erronkan zehar, topa zitezkeen pertsonaietako bat.



Linterna argiekin, gaztetxoek erronkako pistak adi entzuten.



Usurbilgo Gau Beltzak antolakuntzan izandako bidelagun taldea.

Dantza giro bizia, Orbeldiren eta Belmonteren eskutik

Udazkeneko Dantzari eta Trikiti Topafestak herri hau dantzara mugiarazi zuen azaroaren lehenean.

Hilei gorazarre egiteko egun bizi askoa izan zuen herri honek, azaroaren 1eko Udazkeneko Dantzari eta Trikiti Topafestarekin. Goiz parteko eskaintza Orbeldi Dantza Taldeak antolatu zuen, helduen taldeen seigarren topaketarekin. Usurbilgoekin batera, Oiartzungo Olarri eta Iruña Dantza Taldea gonbidatu zituzten ekimenara. Herrian barrena eginiko kalejiran zehar, udaletxe atariko, Artzabalgo nahiz frontoi ondoko plazak dantzaleku bilakatu zituzten.

Adi izan ziren eguraldiari. Euri pixka batekin zien bidean zehar, baina ez zien zapuztu hitzordua ezta topaketaren azken txanpa ere. Mikel Laboa plazan zuten iragarria hiru taldeen emanaldi bateratua; azkenean, Sutegi atariko plazatxoan baliatu zuten horretarako.

Kabitu ezinik

Eguerditik aurrera, Kalezarren segi zuen dantza giroak bertako Belmonte Auzo Elkartearen eskutik. Eguraldia tarteko, Pelaioenea atzealdean koka-



Orbeldiren dantza topaketan parte hartutako taldeetako kideak.

turiko karpagunean kalezararren nahiz dantza topaketako kideen bazkaria ospatu zuten, eta segidan, erromeria. Kalezartarrak eta herrikideak nahiz Aristerrazuren gisako dantzalekuean biltzen den komunitatearen elkargunea izan zen. Gogotik egin zuten dantza, bizi asko, musikariok: Elizagoien ahizpak; Estanga anai arrebak; Eneko

Dorronsoro eta Izer; Kris Solano, Irma eta Amets. Kabitu ezinik aritu ziren dantzaz.

"HILEI GORAZARRE EGITEKO EGUN BIZI ASKOA IZAN ZUEN HERRI HONEK AZAROAREN 1EAN"



Dema plaza dantzaleku, Orbeldikoen topaketan.



Dantza erakustaldi bikaina eskaini zuten hiru taldeek.



Dantza saio irekiarekin amaitu zuten Orbeldik antolatutako topaketa.



Kabitu ezinik, dantza giro bizian aritu ziren Kalezarko erromerian.

2026ko AURREKONTUAK AURKEZTEKO BILERA IREKIAK

AZAROAK 5

Aginaga · Eliza Zaharra
Kalezar · Pelaioenea
Santuenea · Frontoiko lokala

AZAROAK 6

Txokoalde · Txokoargi
Atxegalde · Bustinzulo



AZAROAK 11

Zubieta · Kaxkape
Etxealdia · Potxoenea

AZAROAK 12

Kaxkoa · Potxoenea

Aurrekontuez gain, tokian tokiko gaiak landuko dira
Bilera guztiak 18:00etan izango dira

BIZI EUSKARAZKO ZINEA NOAUAREKIN

KARMELE

AZAROAK 9, igandea 18:00tan SUTEGIKO AUDITORIOAN

SARRERAK: aldezturik salgai 6€tan usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek 4€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

noaUA





"Profesionalizatzeko pauso asko eman behar dira oraindik", azaldu du Aranguren. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Emakumeen futbolak oraindik hobekuntza dezente ditu egiteko"

MADDI ARANGUREN FUTBOLARIA

Maddi Aranguren (Usurbil, 2007) Usurbil Futbol Taldean hasi zuen bere ibilbidea, eta orain, Eibarren bigarren eta hirugarren taldean dabil. Helburua maila mantentzea dela aitortu digu.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Nola ikusten duzu emakumeen kirola?

Geroz eta indar gehiago hartzen ari dela uste dut, baina oraindik hobekuntza dezente egiteko ditu.

Ahizpa txirrindularia duzu. Zu futbolaria zara. Futbolak akaso oihartzun handiagoa du?

Nik uste futbola dela gehien ikusten dena, eta beste kirolekin alderatuta geroz eta pauso handiagoak ari dira ematen. Nabaritzen da beste herrialde batzuekin alderatuta, garapen handia ari dela edukitzen.

Zergatik uste duzu ematen ari dela aldaketa hori?

Lehenago ez zelako hainbeste ikusten, eta orain, agerikotasuna ematen ari zaio hedabideetan.

Arazorik izan duzu emakume kirolaria izateagatik?

Ez, inoiz ez.

Nola izan da zure orain arteko ibilbidea?

"BEHARREZKOA IZATEN DA BESTE IKASKETAREN BAT EGINDA EDUKITZEA, BESTE LAN BAT EGITEKO"

Usurbilgo futbol eskolan hasi nintzen, gero eskola kirolean futbola egiten nuen, Usurbilen kadeteetan urtebete egin nuen, eta gero beste talde batera joan nintzen.

Aurrerapauso bat izan da Reala utzi eta Eibarrera joatea?

Nik Realean hirugarren taldean jolasten nuen, Eibarren hiru-

"NABARITZEN DA BESTE HERRIALDEKIN ALDERATUTA GARAPEN HANDIA ARI DELA IZATEN"

garren taldearen maila berdinan daude baita bigarren eta lehen taldeak ere. Eibarrek aukera eman dit bigarren talde horretan aurreneboraldia egiteko, eta liga horretan jolasteko aukera eman dit. Horregatik uste dut aurrerapauso bat izan dela.

Zer gomendatuko zenioke futboleari hasi den neska bati?

Beldurrik ez izateko. Agian hasieran ez da eroso sentituko defendatzen. Postu desberdinak probatzen joateko esango nioke.

Zein da zure aurtengo helburua?

Lehenengo helburua uste dut bete dudala. Bigarren taldearekin aurreneboraldia egiteko aukera izan dut, eta partidaren bat jolastu dut beraiekin. Ez nuen beste helbururik.

Gol gehien sartzen dituen aurrelaria izatea helburuetako bat da?

Zaila ikusten dut baina gustatuko litzaidake.

Uste duzu lehen taldera iristen bazara futbolaz bizitzeko aukera izango duzula?

Ez dut uste. Emakumeetan soldata nahiko baxuak dira mutilekin alderatuta, eta orduan, beharrezkoa izaten da beste ikasketaren bat eginda edukitzea beste lan bat egiteko. Profesionalizatzeko pauso asko eman behar dira oraindik.

Taldeak zein helburu du?

Bigarren eta hirugarren taldearen helburua maila mantentzea da, ez baita erraz izaten hori lortzea.

Arrasatera entrenatzera joatea kosta egiten zaizu?

Hemen (Usurbilen) jolasten nuenean oinez igotzen nintzen entrenatzera, eta Realean nengoenean taxia jartzen ziguten. Orain, Areitiora joateko Zarautzera joaten naiz trenez, eta handik beste batzuekin kotxez joaten naiz. Hala ere, merezi duela uste dut.

Udalak eta herri kooperatibak Aginaga biziberritzeko urrats garrantzitsua eman dute

Arrate ostatu berriaren inaugurazioan, Aginagako herri kooperatiba eta Udalaren arteko hitzarmena sinatu zen. Lau urteko iraupena izango du, "luzatzeko borondatearekin". Sinadura ekitaldiaren aurretik, akordioaren nondik norakoak azaldu zituzten.

IMANOL UBEDA

Arratek zabaldu ditu ateak. Urriaren 31z geroztik, Aginaga erdiguneak topaleku garrantzitsu bat berreskuratu du.

Egun seinatu horietako bat zen eta Arrate ostatuan topatu genuen giroan nabaria zen. Denbora batez itxita egon eta gero, berriz zabalik da Arrate, eta adinduak zein gazteak, ekitaldia (eta ekitaldiaren ondorengo zizka-mizka) noiz hasiko zain zeuden. Esan beharrekoak uste baino gehiago luzatu ziren, eta ez zen gutxigorako. Aginaga biziberritzeko xedez, lau urteko hitzarmen bat sinatu dute Aginaga herri kooperatibak eta Udalak. Epe horretan Udalak egingo duen ekarpena ez da txikia izango, eta gauzak nola diren azaldu beharra zegoen.

Agurtzane Solaberrieta alkattea izan zen lehena hitza hartzen. "Gaur, Usurbilgo Udalak eta Aginagako herri kooperatibak izenpetuko dugun hitzarmena aurkezttera gatoz. Baina ezer baino lehen, zergatik hitzarmen honen beharra? Gure inguruan, gero eta nabariagoa da herrigune txikien higatzea. Zahartze-tasa altuko eremuak dira, zerbitzuak eteten eta desagertzen doaz, garai bateko eredu ekonomikoari heldu ezin eta erreleboaren falta dago... Egoera honen aurrean, Euskal Herriko landa-eremuetako herri txiki askotan ostatuek, tabernek, janari-dendek... Negrozio huts izaterari utzi diote eta elkargune eta laguntza



Aginagako herri kooperatibak eta Usurbilgo Udalak lau urteko hitzarmena sinatu zuten urriaren 31n, Arrate ostatuaren inaugurazio ekitaldian.

komunitarioko gune bilakatu dira. Aginagan ere antzeko zerbait gertatzen ari zela jabetuta, Aginagako komunitatea elkartzen hasi zen".

Alazne Arruti herri kooperatibako kideak eman zion alkatearen azalpenari segida: "Hau guztia 2022an abiatu zen. Eragile ezberdinak elka-

rrekin lan egiteko prest geunden baina nolabaiteko kohe-sioa behar genuen. Komunitatea oso garrantzitsua izan da beti, auzolana ere bai, baina pauso bat gehiago eman nahi genuen eta bide-orri bat marrazten hasi ginen. Aginaga Biziberritzen deitu genion ekimenari, eta taldetxo bat

hasi ginen lanean, jakinda inguruan bazela hori babes-tuko zuen jendea".

2022ko azaroan, Aztikerrekin batera etxe eginiko gal-detegian, informazio asko jaso zuten eta ondorio garrantzitsuak atera zituzten. "Horren segidan, Olatukoop-en laguntza bilatu genuen", Alazne Arrutik azaldu zuenez. "Guretzat bidelagun oso onak izan dira, beraiei esker ulertu genuen herri kooperatibaren ideia, eta jabetu ginen Aginagak horrelako zerbait behar zuela. Abenduan hasi ginen herri batzarrak egiten eta gure artean antolatzen".

Testuinguru horretan sortu zen Aginaga herri kooperatiba osatzeko ideia. "Helburu nagusia gure bizi kalitatea hobetzea da: familia, herritarrena. Irabazi asmorik gabeko elkarte bat gara eta onura publikoa bilatzen dugu. Bazkide-tza irekita dago oraindik eta kolaboratzaileak ere edukiko ditugu (inguruko enpresak, besteak beste). 42 bazkide gara gaur egun, eta helburua da etxe bakoitzetik gutxienez pertsona bat lortzea".

"Kooperatibaren diagnostikoa konpartitzen genuen"

Udalak berak, gertutik jarraitu du Aginagako herri kooperatibaren prozesu osoa. "Neurri handi batean, diagnostikoa konpartitzen genuen eta konponbidearen estrategian, estrategia partekatu bat izatea nahi genuen". Herri kooperatibaren aurrekari gisa, "2023ko irailean koordinazio mahai bat jarri genuen martxan, mahai iraunkorra izenekoa, Aginagako eragileek eta Usurbilgo Udalak osatua. Mahai horretan lan giro bat sortu zen hasieratik, eta elkarrekin finkatu ditugu zeintzuk izan behar diren Aginagaren lehentasunak".

Azken urteotako lanketa horrek guztiak ahalbidetu du Aginagan herri kooperatiba bat sortu eta proiektu komunitarioa bultzatzeko aukera sortu izana.

**"ELKARREKIN
FINKATU DITUGU
ZEINTZUK DIREN
AGINAGAREN
LEHENTASUNAK"**

AGURTZANE SOLABERRIETA, ALKATEA

**"AGINAGAKO HERRI
KOOPERATIBAKO
BAZKIDETZA
IREKITA DAGO
ORAINDIK"**

ALAZNE ARRUTI, HERRI KOOPERATIBA



Arrate taberna zena, Arrate ostatu bilakatu da. Jantoki komunitarioaren eta denda baten aterpe ere izango da. UDALA

Arrate ostatua eraberritzeko, Usurbilgo Udalak 64.000 euroko inbertsioa egin du

Arrate ostatu eraberritua inauguratu zuten ostiralean Aginagan. Laster, Eliza Zaharreko filtrazio arazoak konpontzen hasiko direla adierazi zuen Iratxe Begiristain udal zinegotziak.

IMANOL UBEDA

Arrate ostatua bolada batez itxita egon da baina joan den ostiraletik martxan da berriz ere. Aurrerantzean gainera, funtzio ezberdinak beteko ditu.

Aginaga herri kooperatiba eta Udalaren arteko hitzarmenaren baitan, hiru kontratazio egingo dira: bi sukaldari-tabernari, eta tabernari-dendari bat. "Hau zertarako? Hiru zerbitzu martxan jartzeko: denda, jantokia eta taberna. Azken hau, guretzat eta bereziki adinekoentzat, ezinbesteko topagunea da", Aritz Aranburu kooperatibako ordezkariak azaldu zuenez.

Taberna eta dendarekin batera, jantoki komunitarioa ere izango da Arrate. "Eskola Txikiko haurrentzat ez ezik, gainerako herritarrentzat ere egongo da zabalik".

Hiru zerbitzuetatik bi berehala jarriko dira martxan: taberna eta jantokia. Denda datozen

asteetan zabalduko da. Armairu eta ekipamendu gehiago falta dira oraindik. "Datozen asteetan ipiniko dituzte eta azpiegitura osatu ahal, eskaini ahal izango dugu oinarrizko denda baten zerbitzua".

Udalaren ekarpenak estaliko du sortutako zulo ekonomikoa

"Zerbitzu hauek denak martxan jartzeko eta kontratazio hauek guztiak egin ahal izateko, zuloarekin hasiko gara". Argi eta garbi, hitz horiekin adierazi zuen Aritz Aranburuk. "Momentuz, hainbeste kubritzeko adina ez delako sortzen. Baina gure asmoa da datozen urteetan ahalegin handiena egitea, une oro, Eliza Zaharrean, hemen Arraten eta etorkizunean etorriko diren proiektu berri guztietan".

Zulo hori estaltzen joateko, ezinbestekoa izango da Usurbilgo Udalak egingo duen

ekarpena. Proiektu honen bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko, "Udalak 65.000 eta 70.000 euro inguru bideratuko ditu urtero", alkateak zehaztu zuenez. Ekarpene horri gehitu behar zaio azken boladan Udalak obretan eta inbertsio ezberdinetan egin duen ahalegin ekonomikoa.

Aginagako herri kooperatiba eta Udalaren arteko hitzarmenaren iraupen alau urtekoa izango da, "luzatzeko borondatearekin".

Aritz Aranburuk aditzera eman zuenez, jarraipen batzorde bat osatu da bi aldeetan artean. "Sei hilabetero Udala eta kooperatibaren artean batzar bat egingo da, kontrol ekonomiko bat emateko".

Alkatea: "Eskerrik asko bidelagun izan ditugun guztioi"

Alkateak, amaitzeko, Aginagako herri kooperatiban lanean

ari diren guztien ekarpena txalotu zuen: "Eskerrik asko kooperatibari, zer esanik ez Aritz Aranburu eta Alazne Arrutiri. Beraien ekarpenik gabe, hau ez litzatekeelako posible izango. Eta eskerrik asko bidelagun izan ditugun Olatuko kooperatibari eta aholkulari juridikoei, beraien laguntzarik gabe ez ginatekeelako hitzarmen honen sinadura ekitaldiaren atarian izango. Orain erronka polita duzue herri bezala, komunitate bezala, eta seguru nago gai izango zaretela erronka honi erantzuteko. Aginagan baduzuelako garra soberan honetarako".

Arrate ostatuaren inaugurazio ekitaldia Alazne Arrutiren hitzekin itxi zen. "Egunotan eromenahandia izan da hemen, jende asko aritu da lanean, altzariak egiten...". Herri kooperatibako kideak herritarren pazientzia eta konpromisoa nabarmendu zituen: "Guztiz eskertuta gaude. Hau ez zela posible izango herriaren inplikaziorik gabe. Gora Agiñal".

Hurrengo erronka, Eliza Zaharreko filtrazioak konpontzea

"Behin San Praixku jaiak pasata, Eliza Zaharreko fatxada zein kanpandorreko ur filtrazioak konpontzeko konpromisoa hartu genuen. Eta hitza betetzeko asmoz, lehenbailehen hasiko gara". Arrateko lanak bukatzea zen lehen helburua, behin zabaldua, filtrazioekin amaitzeko lanekin hasiko da Udala. Iratxe Begiristain zinegotziak azaldu zuenez, "beste 20.000 mila euro aurreikusi dira filtrazio horiek konpontzeko".

"OINARRIZKO DENDA BATEN ZERBITZUA ASTE BATZUK BARRU ESKAINI AHAL IZANGO DA"

ARITZ ARANBURU, HERRI KOOPERATIBA



Nuria Hernandez eta Ane Aranburu, HarEman egitasmoko bikoteetako bat. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Inork ateak irekitzen ez badizkizu, oso zaila da herrian integratzea"

NURIA HERNANDEZ ETA ANE ARANBURU HAREMANEKO KIDEAK

Nuria Hernandez (Avila, 1995) eta Ane Aranburu (Zubieta, 1994) HarEman egitasmoan parte hartzen dute, eta edozeini gomendatzen diote proiektuan parte hartzea. Haien harremana "oso naturala" izan dela azaldu dute.

HarEman proiektua Usurbilgo udalak bultzatutako proiektu bat da, herria harrera herri izateko. Proiektuaren helburua herrira bizitzera etorri direnen bizitza errazagoa egitea da eta komunitatearen parte sentitzea. Horretarako, herriko jendea kanpotik etorritakoen mentore bihurtzen dira eta kanpotik etorritakoak mentorizatzen dituzte. Elkarrekin plan ezberdinak egitea du helburu egitasmoak eta mentorearen bitartez mentorizatuak herriko pertsonak ezagutzean datza, herriko jendea ezagutu dezan.

Dagoeneko bizpahiru txanda antolatu dituzte eta orain mentore eta mentorizatuen

bila dabilta. Egitasmoan parte hartu duten bi pertsonen haien esperientzia kontatu diote NOAUari: Ane Aranburu zubietarrak, mentore gisa; eta Nuria Hernandez Avilakoak, mentorizatu gisa.

Nola hasi zineten HarEmanen?

"NIRETZAKO OSO GARRANTZITSUA DA LEKU BERRI BATERA IRISTEAN NORBAITEK HARRERA EGITEA"

NURIA HERNANDEZ

Nuria Hernandez (N.H.): Ni Usurbilera duela urte eta erdi etorri nintzen bizitzera, eta familiagatik etorri nintzen eta haiek bakarrik ezagutzen nituen. Herrian finkatu nintzeanean, koordinatzaile batekin izan nuen bilera, eta berak hitz egin zidan proiektu ho-

"NIRETZAKO EZ DA KONPROMISO BAT NURIAREKIN ELKARTZEA. LAGUN BAT GEHIAGO DA"

ANE ARANBURU

netaz, eta harremanetan jarri ninduen Julenekin, HarEmaneko koordinatzailearekin.

Ane Aranburu (A.A.): Nire kasuan, urtea nahiko lasai nuen, eta boluntariotza batean izen eman nahi nuen. Laguna dudan zinegotzi batek proiektuaz hitz egin zidan, eta Julen ezagutzen nuen, harekin harremanetan jarri nintzen.

Nola funtzionatzen du HarEmanek?

N.H: Gure artean nahiko natural funtzionatzen du. Bakoitzak bere kabuz izena eman zuen, eta bilera bat izan genuen Julenekin bakoitzak bere kabuz. Koordinatzaileek haien artean adosten dute bikoteak nola osatu.

A.A: Hori da, haiek ikusten dute zein pertsonen bat egin dezaketen, eta pertsona bat egokitzen dizute.

Eta zenbateko maiztasunarekin elkartzen zarete?

N.H: Ideia da guk erreferentzia puntu bat izatea, baina aldi berean mentoreak ez dezan karga handirik izan. Eta ideia zen bi astean behin gelditzea, eta elkarrekin planak egitea.

A.A: Hasieran esan zuten bi astean behin gelditzeko konpromisoa izan behar genuela, eta gero bikote bakoitzaren arabera. Naturala da. Gure lehen bilera eta gero, ideia desberdinak ateraziren. Gure kasuan, udan denbora asko pasa genuen elkarrekin, eta adibidez, Nuria Zubietako jaietara etorri zen.

Proiektuak Anez gain, beste pertsona batzuekin gelditzeko balio izan dizu?

N.H: Uste dut hor gaudela orain. Proiektuko kideok bilera edukiko dugu eta hor izango da nik uste jende gehiago ezagutzeko aukera. Pertsona gehiago ezagutzeko aukera izan dut, baina oraindik ez dugu harreman hori eraiki. Hori hurrengo hilabeteetako helburua izango da.

→ A.A: Ingurua ezagutzen duzunean, jendea agurtzen hasten zaizu.

Hala ere, bere kasua desberdina da urtebete zeramalako herrian bizitzen. Kubatik etorri den batek arazoak izan ditzake paperak eskuratzeko eta herriko bat erreferente gisa edukitzeak, asko lagun diezaioke.

Zenbat pertsonak hartzen duzue parte proiektuan?

N.H: Hasi ginenean sei edo zortzi bikote izango ginen. Baina ez gara lehenengo taldea proiektuan parte hartzen. Urtarrilean hasiko dena antolatzen hasi dira.

A.A: Lehenago beste pare bat txanda egin zituzten, eta sei hilabetero txandak egin nahi dituzte. Dinamikak aurrera jarrai dezan nahi dute.

HarEmanen parte hartzea gomendatuko zenukete?

N.H: Niretzako oso garrantzitsua da leku berri batera



HarEmaneko kideak, Usurbileko txokoak ezagutzen. HAREMAN

iristean norbaitek harrera egitea. Nahiz eta herritik ibili, inork ateak irekitzen ez badizkizu, oso zaila da herrian sartzea. Niri orain galdetuko balidate, ni mentore izango nintzateke, esperientzia hau bizitzea nahiko nukeelako eta harrera izatea nahiko nukeelako.

A.A: Bai, baina gure ikuspuntutik erraz esan daitekela uste dut. Oso naturala izan delako gure harremana, eta koordi-

natzaileek oso ondo aukeratu dutelako gure bikotea.

Niretzako ez da konpromiso bat Nuriarekin geratzea, eta lagun bat gehiago da.

Zuen erlazioa HarEmanetik haratago joan da?

N.H: Bai. Noizbait esan izan digutenean mentore eta mentorizatuak garelako eta arraroa eta guzti egiten zaigu. Bi lagun gara kafe bat hartzen. Dagoneko ez da proiektuaren parte.

Batzuen erlazioa, agian, oraindik ez da hain naturala, eta seguruena gu gauden puntura iristeko prozesuan ari dira, eta agian pixka bat gehiago kostako zaie iristea.

A.A: Izatez boluntarioak gara, baina niretzako ez du zentzurik horrek. Baina egia da ez dela horrela denontzat. Mentoreen bilera bat izan genuen eta bakoitza bere erritmoan doa.

Jendeak agian ez du hainbeste kointziditu. Nik uste prozesu bat dela.

"NIRI ORAIN GALDETUKO BALIDATE, NI ERE NORBAITEN MENTORE IZANGO NINTZATEKE"

NURIA HERNANDEZ

Ekitaldi zikloa, Francoren heriotzaren 50. urtemugaren harira

Azaroaren 20an, 50 urte beteko dira Francisco Franco diktadore espainiarra hil zenetik. Urtemuga horren harira, Usurbil 1936 elkarteak hitzorduak antolatu ditu.

Azaroak 16, igandea

- 18:00 "Olvido Flores" ikuskizuna Sutegin.
- Zehaztasunak: "Estefania de Paz Asin antzezleak Lodosan 1936ko uztailean jazotako sarraskia irudikatzen du maisutasun handiz eta era oso berezian. Lan honengatik sariak ere jaso izan ditu".
- Hizkuntza: gaztelania.
- Izen-ematea: aldeztu aurretik usurbilkultura.eus plataforman.
- Sarrera: izena emandakoek 5 euroko sarrera ordaindu beharko dute emanaldi egu-



Estefania de Paz aktorea.

nean bertan, Sutegiko sarrean.

Azaroak 20, osteguna

- 18:30 Hitzaldia Sutegin: "50 urte Francorik gabe, 50 urte demokrazian?"
- Hizlaria: Josu Txueka.

Antolatzailea: Usurbil 1936 elkarteak.

Nafartarrak taldekoen zikloa

Azaroak 17, astelehena

- 19:00 Hitzaldia Potxoenean: "Euskalduntze berantiarra eta beste ipuin batzuk". Juan Martin Elexpuren eskutik.

Azaroak 18, asteartea

- 19:00 Potxoenean: "Ipuscua 1000 urte, Belmonte de Usurbil 650 urte". Patxi Olabarria eta Iñaki Idigorasekin.

Azaroak 21, ostirala

- 19:00 Asisko Urmenetaren "Sorgina banaiz" dokumentala eta solasaldia Sutegin.

Azaroak 24, astelehena

- 18:30 Xoxe Estévez "Orígenes del nacionalismo en Euskal Herria (1893-1923)" liburuaren aurkezpena egilearen eskutik udal liburutegian.
- Aurkezlea: Breogán Estévez Goñi. Hizkuntza: elebitan.

Ekintza gehiago Santuenean

Urriaren 17an bertso-afaria egin zuten Ibai-Ondo elkartean. Saio hura grabatu eta bilguneak Youtuben duen @SantueneaKulturElkartea kanalean zintzilikatu dute.

Azaroak 7, ostirala

- 17:30-19:30 Sendabelar koardernoa Leire Lazkanoren eskutik, Santueneko frontoi ondoko lokalean.
- Prezioak: Santuenea K.E.ko bazkideek 30 euro, bazkide ez direnek 35.
- Izen-ematea: 621 095 644 / santueneake@gmail.com

Azaroak 29, larunbata

- 14:00 Kantu bazkaria Aialde-Berrin. Txartelak azaroaren 15era arte salgai, Santueneako Esnaolan, Artzabalen eta santueneake@gmail.com helbidean edo telefonoz: 621095644.



"Bizipozatik arrazakeria deseraikitzen" izan zen iazko jardunaldiko mintzagaia. Ordukoa da argazkia.

Heriotzaren pedagogia hizpide, Bizipozaren jardunaldian

"Heriotzaren pedagogia: begirada berri bat beldurretik maitasunera" izeneko jardunaldia antolatu du Bizipoza elkarteak azaroaren 8an Sutegin. "Heriotzaren ezagutza" zabaltea du xede, "heriotzaren inguruan, maila guztietan, dagoen tabua apurtu eta gai honetan herritarrak ahalduztzen" laguntzea. Bizipozak Hil Argi elkartearekin lankidetzan prestatu du jardunaldia.

ARTZ LASARTE

Heriotzaren pedagogiari lotuta azaroaren 8an Sutegin egingo den jardunaldian parte hartuko dute zenbait eragileek; tartean, Usurbilen egoitza duen Iñurri elkarteak. Minbiziaren akonpainamendu, formazio eta dibulgazioan ikuspegi feminista eta eraldatzaile batetik diharduen bilgunearen sortzaile Julene Illarramendik parte hartu zuen ekimenaren aurkezpen ekitaldian. "Jardunaldi honetan guk ekarpena egin baino asko dugu ikasteko zuengandik. Eskertuak gaude hemen egotegatik, ikasteko oso prest", nabarmendu

zuen Illarramendik. 20 urte zituela hil zitzaion minbiziak jota 47 urteko ama. "Egia da beti esaten digutela, minbizi prozesu batean, denbora daukazula hau dena prestatzeko, heriotzaren inguruan hitz egiteko. Baina niri ez zidan denbora eman". Horrek erruduntasun sentimendua eragin ziola gogorarazi zuen, ez zekiela nola kudeatu amaren heriotza. Baina denbora rarekin "erru hori kendu dut. Egin nuen ahal nuen bezala, ez bainuen herremintarik". Izan ere, argi utzi zuen moduan, heriotzaren gaia "tabu handi bat da. Ez digute irakatsi horren inguruan hitz

egiten". Abiapuntu horrekin, min hori eraldatzeko ahaleginetik sortu zuen Iñurri elkarteak, "nire ama nahi nuelako modu batera edo bestera hemen egotea eta hemen dago". Heriotzaren gaia oso presente dute Iñurri elkarteak. "Uda honetan zazpi emakume joan zaizkigu, emakume gazteak haur askorekin".

Era berean, gai hau nola landu eskaera mezu bat baino gehiago ere jasotzen dituela nabarmendu zuen. Horregatik, garrantzitsutzat jo zuen jardunaldi hau. Ildo beretik mintzatu zen baita Urretxu-Zumarragako

Gainzuri ikastetxeko ordezkari Iñaki Etxaniz ere. "Hezkuntzako eragile izanda, azkenean, gizarteko parte ere bagara gu", adierazi zuen. Heriotzaren gaia oraindik tabua izanik, "zorionez ikusi da gizartean ere heriotzaren gaia naturalizatu behar dela. Bizipozak antolatutako jardunaldiak erakusten du heriotzaren gaia aurrera ekarri behar dugula".

Baliabideen lanketa

Ikastetxeetan ere bide bat egiten ari direla azaldu zuen Etxanizek. "Orain arte, heriotz bat gertatzen zenean, ikastetxeetan bakoitzak egiten genuen ahal genuena". Egun, adituekin protokoloak landu eta martxan jartzen dabiltzala zehaztu zuen, hezkuntza komunitatean heriotzen bat jazotzen denean, "prozesu hori ondo egiten ari zarenaren berme bat izateko".

Horrez gain, garrantzitsutzat jotzen du baita, heriotzarik gertatu gabe ere, egunerokoan ikasgeletan heriotzaz hitz egitera, gai hau jorratzera, baliabideak lantzen joateko. Ikastetxeei jardunaldia hitza hartzeko aukeragatik esker-tzeaz gain, jardunaldian izena ematera deitu zuen. Azaroaren 8an egingo da, 9:30-13:30 artean Sutegin. Informazio gehiago eta izen-ematea bizipoza.eus atarian bidera dezakezue.

**"ESKERTUAK
GAUDE
JARDUNALDIAN
EGOTEAGATIK,
IKASTEKO OSO
PREST GARA"**

 943 361 182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

**EGIN ZAITEZ
BAZKIDE!**
www.noaua.eus


Elkargak
Zubiarenea 2, 943 36 55 81

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 688 653 441.

Usurbilen (erdigune edo auzoetan) alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil. Pertsona bakarra naiz eta ez daukat animaliarik. Diru sarrera finkoak ditut. Harremanetarako: 630089127

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. Harremanetarako: 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Oiardo kiroldegiko harreraren lan egiteko pertsona bat behar da, larunbat arratsalde eta igande edo jai egunetan goizez lan egiteko. Interesatuak kurrikuluma bidali hona: jmerrasti@equiponeo.com

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Orduka eta egunez, adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua: 747 446 091.

Usurbilen bizi naiz. Pertsonen zaintza edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Titulu soziosanitarioa dut. 645 067 560.

Lan bila nabil ume zaintzarako edo eskolako lan esfortzurako. Haurren aisialdirako hezitzailea naiz eta esperientzia handia dut. 688 699 986

Usurbilgo emakume euskalduna naiz eta etxeak garbitzeko eskaintzen dut nire burua 615 724 543.

Orduka aritzeko lan bila nabil. Garbiketa lanak edo pertsonen zaintza aritzeko prestutasuna. 623443766

Pertsona helduan zaintzeko lan bila nabil. Zaintzaile titulazioa dut eta esperientzia handia. Interna moduan edo orduka lan egiteko disponibiltasuna. 618814363 (Marta)

Lan bila nabil. 668 57 85 52 / anquitor@gmail.com

BESTELAKOAK

Bigarren eskuko furgoneta edo kombi baten bila gabiltza. Harremanetarako: 626419583

LH6ko ikasle batentzat, euskara erretortzurako irakasle bat behar dugu Aginagan. 679 549 862.

Batxilergo 2. maila egingo duen ikasle bati matematika eta fisikako klase partikularrak emateko norbaiten bila gabiltza. 657714355

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. 615758476.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arretoa	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Pilota partidak

Azaroak 7 ostirala, 17:45 Usurbilgo frontoian

Infantil 3. Mailan eskuz banaka:
-Pagazpe (Barandiaran)
-Gazteleku

Azaroak 8 larunbata, goizeko 9:30ean Aginagako frontoian

Nagusia 2. Mailan Pala gomaz binaka:
-Pagazpe (Errasti-Pagoaga)
-Mundarro

Julen Lejardi Araolazaren omenez

Bi urte bete dira Julen Lejardi gazte usurbildarra istripuz hil zenetik. Horregatik, Usurbil Kirol Elkartek omenaldi xumea egingo dio gazteari, "Kirol Elkarteari eta herri osoari eskaini zion guztiagatik".

Azaroaren 8an, Oiardo kiroldegian, seniorren partidari

Larunbatean, azaroaren 8an izango da, 17:25 inguruan senior mutilen partida hasi aurretik, Oiardo kiroldegiko pistari.

Irakurketa-solasaldi berri bat liburutegian

Abenduaren 9an, 'Aitona Floren' liburua aztertuko dute. 16:45ean udal liburutegian, LH 4tik gorako (DBH1 barne) gazteei zuzendua. Liburuak jada eskuragarri daude.

Eskubaloia Usurbilen

Azaroak 8, larunbata

- 10:00 Kadete neskek:
-Bilagun Usurbil K.E.
-Ecenarro Bergara K.E.
- 11:30 Kadete neskek:
-Cortes Usurbil K.E.
-Ereintza Aguaplast
15:30 Jubenil mutilak:
-Usurbil K.E.
-Uragadeko Pulpo EK.
- 17:30 Senior mutilak:
-Saizar Usurbil K.E.
-Labarra Pulpo E.K.
- 19:30 Jubenil neskek:
-Usurbil K.E.
-Leizaran BricoGoros

Oharra: kadete mutilen partida zehazteke.

HILDAKOAK



Fernanda Lizaso Agirre
Azaroaren 2an hil zen, 94 urterekin.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 07

USURBIL "Go!azen 12.0" telesailaren estreinaldia

Sarrerak doan, usurbilkultura.eus web plataforman.

17:30/19:00 Sutejin.

USURBIL 'Konpasetan' ikuskizuna

"Konpasetan: bidaia intimo bat emakumeen historian zehar" ikuskizuna, Susana Cencillo soinujoaren eta Garazi Kamio idazlearen eskutik.

19:00 Sutejin.

LARUNBATA 08

USURBIL 9. Bizipoza Jardunaldia

"Heriotzaren pedagogia: begirada berri bat beldurretik maitasunera". Informazio gehiago eta izen-ematea: bizipoza.eus

09:30-13:30 Sutejin:

IGANDEA 09

USURBIL "Karmele" filmaren proiektzioa

Sarrerak: aurrez 6 eurotan usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri. NOAUA! K.E.-ko bazkideek 4 eurotan erosi ahalko dituzue kultur elkartearen egoitzan. Antolatzailea: NOAUA!. Laguntzailea: Udala.

18:00 Sutejin.



Garazi Kamio eta Susana Cencillo Sutejin arituko dira ostiral honetan.

20 urteak ospatzeko, eskaintza oparoa liburutegian

Azaroak 7, ostirala

• 19:00-20:00 Suteji Liburutegiaren 20. urtemugako saio berezia: "Konpasetan: bidaia intimo bat emakumeen historian zehar", Susana Cencillo soinujoaren eta Garazi Kamio idazlearen eskutik.

Azaroak 12, asteazkena

• 18:00-18:45 Miriam Mendozaren ipuin kontaketa (2-3 urtekoentzat. Haurrek heldu batekin etorri behar dute.

Azaroak 19, asteazkena

• 18:00-18:50 Ixabel Agirresaren ipuin kontaketa (4-5 urte).

Azaroak 22, larunbata

• 11:30-13:00 Idazketa tailerra (gazteleraz), Ana Merinoren eskutik. Izen-ematea liburutegian.

Azaroak 24, astelehena

• 18:30-19:30 Xoxe Estévez "Orígenes del nacionalismo en Euskal Herria (1893-1923)" liburuaren aurkezpena. Nafartarrak taldekoekin lankidetzat.

Azaroak 26, asteazkena

• 18:00 Pello Añorgaren ipuin kontaketa 6 urtetik gorakoentzat.

Iñurri elkartearen hitzaldi-solasaldia

Azaroaren 12an izango da arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. "Ikerkuntza sistemak nola funtzionatzen duen ulertzen" izena du saioak. Gaztelaniaz eskainiko du Cristina Eguizabal Argazek. Iñurri elkarteak antolaturiko hitzordurako sarrera doakoa izango da.

Umeentzako antzezlanak Txokoalden

Patata tropikala antzerki taldeak 'Ametzen mundua' antzezlan eskainiko du Txokoalden. Azaroaren 14an ostirala, 17:30ean Txokoalden. Aforoa mugatua izango da. 30 umeentzako tokia egongo da. Sarrerak usurbilkultura.eus web gunearen bitartez eskuratu behar dira. Prezioa, 2 euro.

Txokoaldeko zubia berreraikitzen ari direnez, Santuenetik joan behar da Txokoaldera.

Dantza garaikide ikastaroa

Astezkenetan batuko dira kiroldegian, 19:00etatik 20:30era. Helduei zuzendua egongo da. Izena emateko, deitu telefono hauetako batera:

- 657 739 523 (Marta).
- 627 310 660 (Marijo).
- Prezioa: 40 euro, hilean.



ARTZABAL

 BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com

· EGUNEKO MENUA
 · KARTA
 · RAZIOAK
 · HANBURGESAK
 · BOKATAK




943 36 91 39

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN



943 360 321

noaua@publizitatea.eus

noqua

Jardunaldia

ADI ENTZUN, GOZO IDATZI



- Kirol, aisialdi, kultur eta bestelako taldeetan, nola erantzun komunikazio beharrei?
- Zein irizpide ditugu testu eta irudiak zaintzeko?
- Zein tresna edo sare sozial erabili?
- Nola ekidin hizkuntzaren inguruko gatazkak?

*Gazteekin harreman zuzena daukaten guraso eta hezitzaileei zuzendua.

 Azaroak 19, asteazkena

 18:00-19:30

 Potxoenea

Antolatzailea:

noqua

Babeslea:

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

OFIZIOEN GIDA

maiz
hornigalak

•TRESNERIA ETA ERREMINTAK
•EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

•ERAIKUNTZAK •OBRAK
•BERRITZE LANAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

•Fatxaden estaldurak •Estalkien berriztatzeak
•Barruko berrikuntzak •Gremioen koordinaketa
•Igeltseritza orokorra

Tel.: 606 37 21 05 info@arankaberrikuntzak.com USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Hipodromo kalea 10, LASARTE

Tel.: 693 05 93 92 uraitz@uraitz.com

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

•FATXADAK ETA TEILATUAK
•ERAIKUNTZAK •BARRUKO BERRIKUNTZAK
•URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

Antonio
URRUZOLA
AROSZTEGIA

687 845 599 - 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

USURBIL
J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jribargoien@hotmail.com
943 36 14 48 - 676 45 31 76

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas
Telemar

629 121 355

Elkano kalea 13, HERNANI

APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL

ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

•komertzial instalazioak
•beira bikoitza •segurtasun beirak
•dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
Tfnoa.: 600 024 825

zuri
arain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarainiturgintza@gmail.com

